

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 114/2023 Erabakia, martxoaren 7koa. Onestea Arabako kirol federazioentzako laguntzen 2023ko deialdi publikoa, haiek diru baliabidez hornitzearren, betetzen dituzten funtzio publikoak betetzeko eta San Prudentzioetako txapelketak egiteko

Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren Legeak (14/1998 Legea, ekainaren 11koa), 3. artikuluan, kirol federazioak aipatzen ditu Administrazio Publikoen agente laguntzailatzat, Euskadin kirola antolatzen eta garatzen parte hartzen baitute Administrazio Publikoekin batera; eta 15. artikuluan dio ezen administraziozko funtzio publikoak betetzen dituztela eskuordetzaz.

Era berean, 5. artikulua bidez, lurralde historikoetako foru organoei esleitzen zaizkie onespren, laguntza, finantzazio, esku hartze eta kontrolaren gaineko eskumenak, kirol federazioek beren funtzio publikoak betetzen dituztela bermatzearren, beren jarduera pribatuaren kalterik gabe.

16/2006 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Federazioei buruzkoa) 6. artikuluan dio ezen Administrazioek kirol federazioei beren jarduerak egiteko behar dituzten laguntza teknikoa eta babes ekonomikoa emango dizkietela, beren aurrekontuetan ezarrita dauden diru-horniduren arabera.

Hori guztia dela eta, akordio honen bidez formula bat prestatu nahi da, Arabako kirol-federazioei, aurrekontu-mugen barruan, baliabide ekonomiko nahikoak eman ahal izateko, beren administrazio-funtzio publikoak bete ditzaten eta, oro har, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak esleitzen dizkion eskumenak baliatuz Arabako Foru Aldundiaren agente laguntzaile gisa jardun dezaten.

Federazio bakoitzari urtero egingo zaion ekarpena honako hau izango da: urteko gutxieneko ekarpen bat, ekarpen osagarri bat eta San Prudentzio eguna ospatzeko kirol-jarduerak antolatzeke ekarpen bat.

Aginduzko txostenak ikusi dira.

Horregatik, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, erabaki hau onetsi da,

ERABAKIA

Lehena. Arabako Kirol Federazioentzako 2023rako laguntzen deialdi publikoa onartzea. Laguntza horien helburua da federazio horiek baliabide ekonomikoak ematea, izaera administratiboko funtzio publikoak bete ditzaten eta sanprudentzio txapelketak gara ditzaten.

Bigarrena. Deialdi hau arautzen da Kultura eta Kirol Sailaren lehia-araubideko diru-laguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorren arabera (50/2019 Foru Dekretua, azaroaren 12koa, Foru Gobernu Kontseiluarena, 2019ko azaroaren 20ko ALHAOn argitaratua, 134. zk., martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak aldatua), Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko urriaren 9ko 11/2016 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera, bai eta Arabako Lurralde Historikoaren Diru-laguntzen Akordioan ezarritakoaren arabera ere.

Hirugarrena. Laguntza horien gehieneko zuzkidura 365.000,00 eurokoa izango da. Gastu hori babesten duen aurrekontu-partida 70201G/341700/48100710, Kirol Federazioak (Arabako Foru Aldundiaren 2023rako Gastuen Aurrekontuko gutxienekoa eta osagarria) da.

Laugarrena. Organo eskudunak, Kirol zuzendaritzaren proposamena ikusita, dagokion ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratu eta gehienez ere sei hilabeteko epean. Gehienezko epea igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, interesdunek ulertu ahal izango dute eskabidea ezetsi egin dela.

Bosgarrena. Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena banan-banan jakinaraziko zaie erakunde eskatzaileei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 41. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da eta ondorioak argitaratu eta hurrengo egunean izango ditu.

Zazpigarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. artikuluan xedatzen duenaren arabera, aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko Foru Gobernu Kontseiluari, hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edota zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka egin dakioko bi hilabeteko epean, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, administrazioarekiko auzietarako kasuan kasuko epaitegietan, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 46.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 7a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Kultura eta Kirol Saileko diputatua

ANA M. DEL VAL SANCHO

Kirol zuzendaria

ANA ROSA LÓPEZ DE URALDE GÓMEZ

ERANSKINA

Dirulaguntza deialdia, kirol federazioei baliabide ekonomikoak emateko, administrazio arloko eginkizun publikoak bete eta San Prudentzioetako txapelketak egin ditzaten

1. artikulua. Deialdiaren xedea eta dirulaguntza emateko prozedura

Deialdiaren xedea da baliabide ekonomikoak ematea kirol federazioei, administrazio arloko eginkizun publikoak betetzeko eta, oro har, Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak esleitzen dizkien eskumenak egikaritzean Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile dihardutenerako, bai eta sanprudentzioetako txapelketak egiteko ere.

Deialdi honek bat egiten du Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak norgehiagoka bidez emateko oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuan (2019ko azaroaren 20ko ALHAO, 134. zk.) xedatutakoarekin, zeina aldatu baitzuen Foru Gobernu Kontseiluaren martxoaren 2ko 7/2021 Foru Dekretuak (2021eko martxoaren 10eko ALHAO, 28. zk.).

Laguntzak norgehiagoka bidez emango dira.

2. artikulua. Dirulaguntzen aurrekontu egozpena, zenbatekoa eta muga

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoa ezin daiteke 365.000,00 euro baino handiagoa izan. Zenbateko hori Arabako Foru Aldundiaren 2023ko ekitaldirako gastu aurrekontuko "Kirol federazioak (gutxienekoa eta osagarria)" izeneko 70201G/341700/48100710 partidari egotziko zaio.

Federazio onuradunek jasoko duten laguntza hiru zatitan banatuko da:

1. Gutxienez 3.000,00 euroko ekarpena, eskaera behar bezala aurkezten duten kirol federazio guztiei.
2. 750,00 euro antolatzen duten San Prudentzioetako txapelketa bakoitzerako. Gehienez ere, 26.250,00 euroko ekarpena egingo da kontzeptu hori dela eta, kirol federazioek planifikatutako jarduera guztietarako.
3. Ekarpen osagarri aldakorra, 10. artikuluan ezarritako baremoen arabera kalkulatua. Laguntza zati honentzat lehenengo paragrafoan ezarritako aurrekontu mugaren eta aurreko 1. eta 2. apartatuetako kontzeptuen baturaren arteko aldea bideratuko da.

3. artikulua. Diruz lagunduko diren gastuak

Laguntza honen bidez egiten diren ekarpenak Arabako kirol federazioen 2023ko ohiko jardunari aurre egiteko eta San Prudentzioetako txapelketak egiteko erabiliko dira.

Beraz, honako hauek joko dira diruz laguntzeko moduko gastutzat:

- a) Funtzionamendu gastuak (langileak, erakunde laguntzaileak...).
- b) Bulegoko gastuak (hornidurak, telefonoa, fotokopiak, Internet, web orrialdeen mantentze lana, eta abar).
- c) Edonolako kirol jardueren garapena osatzeko egindako gastuak.
- d) San Prudentzioetako txapelketak antolatzeko gastuak.

Diruz lagundu ahal izango dira, halaber, Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko enklabean San Prudentzio edo Estibalizko Andra Mariaren jaiaren inguruan egiten diren kirol jarduerak (probak, txapelketak, erakustaldiak eta antzeko ezaugarriak dituzten beste proba batzuk), baldin eta dagokion kirol federazioaren egutegi ofizialaren barruan badaude.

4. artikulua. Erakunde onuradunak

Onuradun izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan behar bezala inskribatuta dauden eta 2022. urtean jarduera federatua izan duten Arabako kirol federazioak.

Ez dira onuradun izango ez Kultura eta Kirol Sailaren dirulaguntzak ematea arautzen duten oinarri orokorrak onetsi zituen Foru Gobernu Kontseiluaren azaroaren 12ko 50/2019 Foru Dekretuaren hirugarren oinarrian jasotzen diren baztertze egoeretan dauden erakundeak, ez Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legean araututako egoeraren batean daudenak.

5. artikulua. Arabako kirol federazio onuradunen betebeharrak

Hona hemen Arabako kirol federazio onuradunen betebeharrak:

- a) Baremaziorako eskatutako agiriak eta justifikatzeko nahitaezkoak direnak aurkeztea deialdi honetan jasotako epe eta moduetan.
- b) Deialdi bakoitzaren arabera, Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea, dirulaguntzen deialdiak ebazteko behar diren ziurtagiriak eta datuak batzen.
- c) 2009. urteaz geroztik (urte hori barne) jaiotako eskolako kirolarientzat lizentzia federatuak ez izapidetzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiaren Kirol zuzendaritzaren baimen espresurik gabe, eskola kirola arautzen duten araudiak onesten dituen 50/2021 Foru Agindua VII. tituluaren bigarren ataleko 68. artikulua lehenengo puntuaren adierazitakoaren arabera.
- d) 2022-2023 kanpaina eskola kirolarientzat kirol lehiaketarik ez antolatzeko konpromisoa, Arabako Foru Aldundiaren Kirol zuzendaritzaren baimen espresurik gabe.

e) Ohiko jarduera, jarduera administratiboa eta, oro har, federazioaren, eskolako eta aisialdiko jarduera garatzeko beharrezkoak diren guztiak egitea.

f) Egindako jardueri buruzko datuak eta agiriak ematea, Kirol zuzendaritzak hala eskatzen dienean. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Epaitegiak edo beste erakunde eskudun batzuek eskatutako informazioa ere eman beharko dute, eta dagozkien auditoretzak egitea onartu.

g) Arabako Foru Aldundiarekin lankidetzan aritzea klub, kirol talde eta, oro har, kirolariei ezagutarazteko Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Kirol Sailak onesten dituen dirulaguntzen deialdiak.

Era berean, kirol federazio onuradunek honako betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. Kirol zuzendaritzak ofizioz kontsultatuko du egoera hori erakunde eskudunetan, baldin eta erakunde interesduna horren aurka ez badago.

b) Beren jardueretan Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean ezarritako printzipio orokorrak betetzea, bai eta aplikatu beharreko araudian berdintasunari buruz jasotako aginduak ere, bereziki honako alderdi hauei dagokienez: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea beren lurralde eremuko kirol modalitatea praktikatzeko; komunikazioetan, argitalpenetan, programetan, ikastaroetan eta abarretan hizkuntza berdintasunez erabiliko dela bermatzea; emakumeak diskriminatzen dituzten irudirik ez erabiltzea; eta berdintasuna, dibertsitatea, rol aniztasuna eta erantzukidetasuna oinarri dituen irudia sustatzea. Halaber, hizkuntza ez-sexista erabiltzea egiten diren agiri guztietan, aurkezpenetan, ahozko komunikazioan eta komunikazio sinbolikoan.

c) Dirulaguntza ematen duen erakundeari jakinaraztea Estatuko edo nazioarteko beste edozein administraziok edo erakunde publikok edo pribatuk helburu bererako dirulaguntzak edo laguntzak eman dizkiola, bai eta dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan izandako aldaketak ere.

d) Arabako Foru Aldundiaren finantzaketa berariaz adieraztea diruz lagundutako jarduera guztietan, baldin eta zabaldu, hedatu edo argitaratu behar badira.

e) Hizkuntza ofizialen erabilerari dagokionez, honako jarraibide hauek betetzea:

– Liburuxkek, kartekek eta herritarren artean jarduera zabaltzeko bestelako euskarriek bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dute material hori.

– Dirulaguntzaren xedea jarduera irekia denean edo ekitaldi publiko bat antolatzen denean, bi hizkuntza ofizialetan zabaldu beharko da.

– Aldundiak diruz lagundutako jarduera edo ekitaldietan euskararen erabilera bermatu beharko da, aurkezpenetan eta agurretan, gutxienez; lehenik euskaraz egingo da, eta ondoren gaztelaniaz.

– Diruz lagundutako jarduera edo ekitaldia hurrei edo gazteei zuzenduta badago, pertsona onuradunek haiekin euskaraz zein gaztelaniaz harremanetan jartzeko aukera bermatuko diete.

f) Diruz lagundutako jarduerak egiten dituzten eta adingabeekin ohiko harremanak edukitzea eskatzen duten langile kontratatuek eta/edo boluntarioek Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketaren Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa dutela egiaztatzea. Era berean, berehala aplikatzea Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Era Integralean Babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren V. tituluko II. kapituluaren xedatutakoa, sortutako aurrekariak baldin badaude sexu delitugileen eta gizakien salerosketaren erregistro zentralean.

Betebeharrak ez betetzeak jasotako laguntza itzultzeko eskatzea ekarriko du.

6. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Kirol federazioek eskaera bana baino ezin izango dute aurkeztu.

2. Eskaerak egoitza elektronikoan esteka honetan eskuragarri dagoen berariazko izapidea-ren bidez soilik formalizatuko dira: aurkezteko, izapide espezifiko bat bete beharko da, egoitza elektronikoan eskuragarri dagoena, esteka honetan.

3. Eskaerak osorik bete ezean edo deialdi honetan eskatutako agiriren bat falta izanez gero, interesdunari eskatuko zaio falta diren datuak eta nahitaezko agiriak aurkezteko hamar egun baliouduneko epean. Era berean, jakinaraziko zaio, horrela egin ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko dela, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo dela, kasuan kasuko ebazpena eman ondoren. Nolanahi ere, Kultura eta Kirol Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta eba-luatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

4. Kultura eta Kirol Sailak egiaztatuko du erakunde eskatzaileak Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak egunean izateko baldintzak betetzen dituela, salbu eta erakunde horrek horren aurka egiten badu; kasu horretan, egitate hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko du, 39/2015 Legearen 28.2 artikulua arautzen duen bezala (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organi-koak aldatua, azken xedapenetatik hamabigarrenean).

7. artikulua. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskaera egiteko, horretarako prestatutako formulario elektronikoa bete beharko da. Puntuatu beharreko atalak behar bezala barematzeko, federazioak atal bakoitzean ezartzen diren agiriak emango ditu. Gainera, beste agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

1. 2022. urteari buruzko kontabilitatea:

a. Orriak zenbakituta eta zigilatuta dauzkan liburu batean eramatekotan, nahikoa izango da 2022ari dagozkion orrien fotokopia.

b. Kontabilitatea ez bada liburu bidez eramaten, haren fotokopia aurkeztu beharko da, Eusko Jaurlaritzaren Kirol zuzendaritzako Kirol Erakundearen Erregistroak hari oniritzia eman eta gero.

2. 2023an egindako federazioaren batzarraren akta.

3. 2023. urterako edo 2022-2023 denboraldirako aurrekontua (dagokionaren arabera).

a. Bakarra izango da, kapituluka eta programaka zehaztuko da eta federazioaren gastu eta diru sarrera guztiak jasoko ditu.

b. Gastuak eta diru sarrerak orekatuta egongo dira, eta ezin izango da defizitarioa izan Ara-bako Foru Aldundiaren baimena lehenago lortu ez bada.

8. artikulua. Aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko hamabost egun baliouduneko epea egongo da erabaki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. artikulua. Balioespen irizpideak eta ekarpen osagarriko eta sanprudentzioetako txapel ketetarako aurkeztu beharreko agiriak

Horretarako prestatutako inprimaki elektronikoan jasoko dira kalkulua egiteko behar diren datuak. Era berean, atal bakoitzean eskatzen diren egiaztagiria erantsi beharko dira. Barematu beharreko atalak honako hauek dira:

a) Federazioaren egitura eta jardueren antolaketa:

a.1. Soldatapeko langileak egotea, edo ez, gutxienez 6 hilabeteko kontratuarekin, 2022an. Sol-datapeko langileak daudela egiaztatzeko, federazioek hauexek entregatu beharko dituzte:

— Lan kontratuaren kopia.

– Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoa lortzen diren langileen izen zerrenda eta kotizazioen likidazio ordainagiria, 2022. urteari dagozkionak.

– 2022ko PFEZaren ekarpenen urteko laburpena (190 eredu).

a.2. Eskola kiroleko hitzarmena badagoen (inprimakian adierazi, besterik ez).

a.3. Indarrean dagoen kudeaketa aurreratuko ziurtagiria izatea, Euskalit-Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin egina (inprimakian adierazi, besterik ez).

a.4. Parekotasuna federazioaren zuzendaritza batzordearen osaeran (inprimakian adierazi, besterik ez).

b) Kirol federatua (federazioaren lizentzia ez eskola lizentzia daukatenek parte hartzen duten lehiaketa ofizialei buruzko datuak).

b.1. 2022ko abenduaren 31n emanda dauden federazio lizentzien kopurua. Hori egiaztatzeko, federazioek Kirol zuzendaritzak eskatutako 2022ko federazio lizentzien ziurtagiria aurkeztuta izan beharko dute, kategoria bakoitzean sexuaren arabera berezita.

b.2. Federazioari atxikitako kirol klub edo elkarte kopurua (ez taldeak), 2022an estatuko, erki-degoko zein probintziako lehiaketa ofizial federatuetan parte hartu dutenak (inprimakian adierazi, besterik ez).

b.3. 2022an, urtarrila eta abendua bitartean, probintziako lehiaketa ofizial federatuaren egutegiek izandako jardunaldi kopurua (inprimakian adierazi, besterik ez).

• Lehiaketa “ofizialak” baino ez dira kontuan hartuko; hau da, “Arabako txapelkun” titulua lortzeko helburua dutenak, modalitate, kategoria eta adin tarte desberdinetan, eta Arabako kasuan kasuko federazioak antolatu eta garatutakoak.

• Ondorioz, lagunartekoak kanpoan geratzen dira.

• Era berean, kanpoan geratzen dira klub batek, eta ez kasuan kasuko Arabako federazioak, zati batean edo osorik, antolatutako “Arabako txapelketa” bat lortzera bideratutako lehiaketa ofizial guztiak.

Atal hau betetzeko, jardunalditzat hartuko da gizonezkoen zein emakumezkoen kategoria bakoitzeko (kadeteak, gazteak, seniorrak, etab.) kirol modalitate edo espezialitate bakoitzaren probintziako egutegi bakoitzeko lehiaketa egun bakoitza. Kategoria berean talde bat baino gehiago badaude (A, B, C, eta abar) eta horien jardunaldiak egun berekoak badira, soilik egun bakoitza hartuko da jardunalditzat.

c) Eskola kirola (Arabako eskola kiroleko jokoan garapenean erakunde laguntzaile moduan parte hartzen duten Arabako kirol federazioak eta Arabako Mendi Federazioa, eskola umeen mendi irteerak egiteagatik):

c.1. 2022-2023ko eskola kiroleko kanpainan eskola lehiaketa ofizialetan eta mendirako eskola irteeretan parte hartzen duten irabazteko asmorik gabeko elkarten (ez taldeak) kopurua. Hori egiaztatzeko ez da inolako daturik beharko, Kirol Zerbitzuak berak ziurtatu beharko baitu, 2022-2023ko eskola kiroleko kanpainako inskripzioetan oinarrituta.

c.2. 2022-2023ko eskola kiroleko kanpainan eskola lehiaketa ofizialen egutegiko (benjaminak, kimuak, haurrak eta kadeteak) eta mendirako eskola irteeren egutegiko jardunaldi kopurua.

Atal hau betetzeko, jardunalditzat hartuko da gizonezkoen zein emakumezkoen kategoria bakoitzeko (benjaminak, kimuak, haurrak, kadeteak eta abar) kirol modalitate edo espezialitate bakoitzaren probintziako egutegi bakoitzeko lehiaketa egun bakoitza. Kategoria berean talde bat baino gehiago badaude (A, B, C, eta abar) eta horien jardunaldiak egun berekoak badira, soilik egun bakoitza hartuko da jardunalditzat.

d) San Prudentzioetako txapelketak:

San Prudentzio jaiegunaren inguruan antolatu eta egindako kirol jardueren memoria. Jarduera honi lotutako atala bete behar da laguntza eskatzeko inprimaki elektronikoan, bertan eskatzen diren datu guztiak adierazita. Jarduera hori nahitaez egin behar da 2023ko apirilaren 13tik maiatzaren 7ra bitartean, biak barne. Jarduera dagokion federazioaren egutegi ofizialaren barruan egongo da, eta haren izenak argi eta garbi aipatuko du omendu nahi duen patroia.

10. artikulua. Baremoak eta ekarpen osagarriko eta San Prudentzioetako txapelketetarako kalkulua egiteko modua

Ekarpen osagarriaren puntuazio baremoak hurrengo a, b eta c apartatuetan ezarri dira. San Prudentzioetako eta Estibalizko Andra Maria txapelketetarako kalkulua d apartatuaren arabera egingo da.

a) Federazioaren egitura eta jardueren antolaketagatik:

	PUNTUAK
Federazioan pertsona bat kontratatuta, gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldi osoan	5
Federazioan pertsona bat kontratatuta, gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldi erdian	3
Federazioan pertsona bat kontratatuta, gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldiaren erdia baino ehuneko txikiagoan	1
Federazioan bi pertsona kontratatuta, bietako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldi osoan	10
Federazioan bi pertsona kontratatuta, bietako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldi erdian	6
Federazioan bi pertsona kontratatuta, bietako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldiaren erdia baino ehuneko txikiagoan	2
Federazioan hiru pertsona de gehiago kontratatuta, hiruretako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldi osoan	15
Federazioan hiru pertsona de gehiago kontratatuta, hiruretako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldi erdian	9
Federazioan hiru pertsona de gehiago kontratatuta, hiruretako bakoitza gutxienez 6 hilabetez 2022an, lanaldiaren erdia baino ehuneko txikiagoan	3
Eskola kirola garatzeko hitzarmena izatea	10
Federazioak egituraren funtzionamendua hobetzeko kudeaketa aurreratuko sistemen Euskalit – Bikaintasunerako Euskal Fundazioaren ikastaroan (Kudeaketa aurreratuko diploma) parte hartu eta abian jarri izana; horien ziurtagiriak indarrean egon behar dira eskaera aurkezten den unean	18
4 kide edo gehiagoko zuzendaritza batzordeak, zeinetan sexu bakoitzak gutxienez ehuneko 40ko ordezkaritza baitu; gainerakoetan, bi sexuen partaidetza	5

b) Kirol federatua:

b.1. 2022ko abenduaren 31n emanda dauden federazio lizentzien kopuruagatik:

FEDERAZIO LIZENTZIEN KOPURUA	PUNTUAK
100 lizentzia arte	2
101 eta 200 lizentzia artean	4
201 eta 300 lizentzia artean	6
301 eta 400 lizentzia artean	8
401 eta 500 lizentzia artean	10
501 eta 600 lizentzia artean	12
601 eta 700 lizentzia artean	14
701 eta 800 lizentzia artean	16
801 eta 900 lizentzia artean	18
901 eta 1.000 lizentzia artean	20
1.001 eta 1.100 lizentzia artean	22
1.101 eta 1.200 lizentzia artean	24
1.201 eta 1.300 lizentzia artean	26
1.301 eta 1.400 lizentzia artean	28
1.401 eta 1.500 lizentzia artean	30
1.501 eta 1.600 lizentzia artean	32

FEDERAZIO LIZENTZIEN KOPURUA	PUNTUAK
1.601 eta 1.700 lizentzia artean	34
1.701 eta 1.800 lizentzia artean	36
1.801 eta 1.900 lizentzia artean	38
1.901 eta 2.000 lizentzia artean	40
2.001 eta 2.100 lizentzia artean	42
2.101 eta 2.200 lizentzia artean	44
2.201 eta 2.300 lizentzia artean	46
2.301 eta 2.400 lizentzia artean	48
2.401 eta 2.500 lizentzia artean	50
2.501 eta 2.600 lizentzia artean	52
2.601 eta 2.700 lizentzia artean	54
2.701 eta 2.800 lizentzia artean	56
2.801 eta 2.900 lizentzia artean	58
2.900 baino gehiago	60

b.2. Kirol klub edo elkarten kopuruagatik:

Federazioari 2022. urtean atxikitako kirol klub edo elkarten (ez taldeak) kopurua (puntu horiek kontabilizatzeko, beharrezkoa da b.1 apartatuan zehaztutako federazio lizentziak egotea):

KLUB KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 5 klub artean	1
6 eta 10 klub artean	2
11 eta 15 klub artean	3
16 eta 20 klub artean	4
21 eta 25 klub artean	5
26 eta 30 klub artean	6
31 eta 35 klub artean	7
36 eta 40 klub artean	8
41 eta 45 klub artean	9
46 eta 50 klub artean	10
51 eta 55 klub artean	11
56 eta 60 klub artean	12
61 eta 65 klub artean	13
66 eta 70 klub artean	14
71 eta 75 klub artean	15
76 eta 80 klub artean	16
81 eta 85 klub artean	17
86 eta 90 klub artean	18
91 eta 95 klub artean	19
96 eta 100 klub artean	20
101 eta 110 klub artean	21
111 eta 120 klub artean	22
121 eta 130 klub artean	23
131 eta 140 klub artean	24
140 klub baino gehiago	25

b.3. Jardunaldi kopuruagatik:

2022an, urtarrila eta abendua bitartean, probintziako lehiaketa ofizial federatuaren egutegiek izandako jardunaldi kopurua. Gizonezkoen nahiz emakumezkoen kategoria federatu guztietako jardunaldiak batuko dira (puntu horiek kontabilizatzeko, beharrezkoa da b1 apartatuan zehaztutako federazio lizentziak egotea):

EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 10 jardunaldi artean	2
11 eta 20 jardunaldi artean	4
21 eta 30 jardunaldi artean	6
31 eta 40 jardunaldi artean	8
41 eta 50 jardunaldi artean	10
51 eta 60 jardunaldi artean	12
61 eta 70 jardunaldi artean	14
71 eta 80 jardunaldi artean	16
81 eta 90 jardunaldi artean	18
91 eta 100 jardunaldi artean	20
101 eta 110 jardunaldi artean	22
111 eta 120 jardunaldi artean	24
121 eta 130 jardunaldi artean	26
131 eta 140 jardunaldi artean	28
141 eta 150 jardunaldi artean	30
151 eta 200 jardunaldi artean	35
201 eta 250 jardunaldi artean	40
251 eta 300 jardunaldi artean	45
301 eta 350 jardunaldi artean	50
351 eta 400 jardunaldi artean	55
401 eta 450 jardunaldi artean	60
451 eta 500 jardunaldi artean	70

c) Eskola kirola.

Eskola kirolaren garapenean erakunde laguntzaile gisa jarduten duten Arabako kirol federazioak.

c.1. Irabazteko xederik gabeko elkarten kopurua:

2022-2023 eskola kiroleko kanpainen izena eman duten irabazteko xederik gabeko elkarten (ez taldeak) kopurua:

ERAKUNDE KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 5 erakunde artean	1
6 eta 10 erakunde artean	2
11 eta 15 erakunde artean	3
16 eta 20 erakunde artean	4
21 eta 25 erakunde artean	5
26 eta 30 erakunde artean	6
31 eta 35 erakunde artean	7
36 eta 40 erakunde artean	8
41 eta 50 erakunde artean	9
51 eta 60 erakunde artean	10
61 eta 70 erakunde artean	11
71 eta 80 erakunde artean	12
81 eta 90 erakunde artean	13
91 eta 100 erakunde artean	14
101 erakunde baino gehiago	15

c.2. Jardunaldi kopurua:

2022-2023ko eskola kiroleko kanpainen eskola lehiaketa ofizialen egutegiko (benjaminak, ki-muak, haurrak eta kadeteak) eta mendirako eskola irteeren egutegiko jardunaldi kopurua. Gizo-nezkoen zein emakumezkoen eskola kategoria guztietako jardunaldiak batuko dira:

EGUTEGIKO JARDUNALDI KOPURUA	PUNTUAK
1 eta 10 jardunaldi artean	1
11 eta 20 jardunaldi artean	2
21 eta 30 jardunaldi artean	3
31 eta 40 jardunaldi artean	4
41 eta 50 jardunaldi artean	5
51 eta 60 jardunaldi artean	6
61 eta 70 jardunaldi artean	7
71 eta 80 jardunaldi artean	8
81 eta 90 jardunaldi artean	9
91 eta 100 jardunaldi artean	10
101 eta 110 jardunaldi artean	11
111 eta 120 jardunaldi artean	12
121 eta 130 jardunaldi artean	13
131 eta 140 jardunaldi artean	14
141 eta 150 jardunaldi artean	15
151 eta 200 jardunaldi artean	20
201 eta 250 jardunaldi artean	25
251 eta 300 jardunaldi artean	30
301 eta 350 jardunaldi artean	35
351 eta 400 jardunaldi artean	40
401 eta 450 jardunaldi artean	45
450 jardunaldi baino gehiago	50

Ekarpen osagarria kalkulatzeko, artikuluko honetako a, b eta c apartatuak batuko dira. 2. artikuluko 3. apartatuan ezarritako emaitza federazio guztien artean lortutako puntu guztien artean zatituko da. Horrela, puntu balioa lortuko da. Puntu balio hori federazio bakoitzak lortutako puntuekin biderkatuko da; horrela, federazio bakoitzari esleitu beharreko zenbatekoa lortuko da.

d) San Prudentzioetako txapelketak.

Kirol modalitate bakoitzean, egindako eta justifikatutako jarduera bakoitzeko kalkulu sistema bat ezartzen da. Federazio bakoitzari dagokion zenbatekoa zehazteko, federazio bakoitzak antolatutako San Prudentzioetako jardueren kopurua 750,00 euroz biderkatuko da; gehieneko muga 5 jarduerakoa izango da kirol modalitate eta federazio bakoitzeko.

Ekarpen hori gehienez 26.250,00 eurokoa izango da, hau da, San Prudentzioetako 35 kirol jarduera antolatzeari dagokiona.

35 baino gehiago eskatuz gero, eragiketa hau egingo da: 26.250,00 euro zati eskatutako sanprudentzioetako txapelketa kopurua.

Ez dira laguntza honen onuradunak izango Kultura eta Kirol Sailaren aurrekontuan diru-laguntza izendunak dituzten kirol federazioak, baldin eta haien helburua dirulaguntza honen xedearekin bat badator.

11. artikulua. Ebazpena eta dirulaguntza ordaintzea

1. Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Saileko Kirol zuzendaritza izango da prozeduraren instrukziorako organo eskuduna.

2. Eskeraek balioespen batzordeak aztertuko ditu. Balioespen batzordearen buru Kirol zuzendaria izango da, eta honako hauek izango dira batzordekideak: Kirol Zerbitzuaren burua eta zerbitzu horri atxikitako teknikari bi. Kultura eta Kiroleko Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua edo hark eskuordetzen duen pertsona izango da idazkaria, hitzarekin baina botorik gabe.

Aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera aztertu ondoren, balioespen batzordeak txostena egingo du, eta ebaluazioaren emaitza zehaztuko du han.

3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko erakunde eskatzaileek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

4. Organo eskudunak bidezko ebazpena emango du, balioespen batzordeak proposatuta, gehienez ere sei hilabeteko epean, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera. Gehienezko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

5. Esleipen ebazpenean zer erakunde eskatzaileari eman zaion dirulaguntza zehaztu behar da, eta berariaz adierazi behar da gainerako eskaerak ezetsi direla. Ebazpenean adierazi beharko da dirulaguntza zenbatekoa den (2. artikuluan azaldutako kontzeptu bakoitzeko emandako zenbatekoa xehatuko du), nola ordainduko den, zer dokumentazio aurkeztu behar den eta zein baldintzarekin ematen den dirulaguntza.

6. Dirulaguntza eman edo ukatzen duen ebazpenaren berri emango zaie erakundeei, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 41 eta hurrengo artikuluetan aurreikusten dituen moduetan.

12. artikulua. Ordainketa eta justifikazioa

1. Deialdi honen ebazpena argitaratu ondoren ordainduko dira 2. artikuluko 1. eta 3. apartatuetako zenbatekoak.

2. 2. artikuluko 2. apartatuko zenbatekoen ordainketa San Prudentzioetako txapelketak benetan egin direla justifikatu ondoren egingo da. Justifikazio hori egiteko, gutxienez, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a. Txapelketaren izena, erakunde antolatzailea eta txapelketaren eguna eta ordua. Kirol diziplina.
- b. Txapelketaren argazkiak.
- c. Parte hartzaileen zerrenda.
- d. Txapelketako sailkapenak.
- e. Txapelketaren publizitatea, egonez gero: kartelak, diptikoak, webgunerako esteka, eta abar.

San Prudentzioetako jarduerak justifikatzeko behar den dokumentazioa 2023ko maiatzaren 28an amaituko da (egun hori barne).

3. Ekarpen osagarria kalkulatzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko epea eskaerak aurkezteko azken egunera artekoa izango da.

4. Federazioak 2023an egindako batzarraren akta emateko epea 2023ko azaroaren 2an amaituko da (egun hori barne).

5. Adierazitako dokumentazioa aurkezten ez bada, bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da, hala badagokio.

13. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

1. Deialdi honen bidez emango diren laguntzak bateragarriak izango dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publikoek zein pribatuek (estatukoek, Europar Batasunekoek edo nazioartekoek) bai eta Arabako Foru Aldundikoak berak ere, ematen dituzten dirulaguntzekin, laguntzekin, dirusarrerekin edo baliabideekin, baldin eta gaingitzen ez bada diruz lagundutako kontzeptuaren kostua.

2. Deialdi honetan araututako dirulaguntzen zenbatekoak, bakarka hartuta edo beste administrazio publiko batzuen edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuen dirulaguntzekin edo laguntzekin batera, ez du inola ere gaingituko sortutako gastuen kostua.

14. artikulua. Deialdiaren argibideak

1. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da.

2. Halaber, Arabako Foru Aldundiaren web orrian jarriko da ikusgai: www.araba.eus.

15. artikulua. Erantzukizunak

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dute deialdi honen xede diren jarduerak egitearen erantzukizuna, bai eta haiek egin ahal izateko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzea ere.

16. artikulua. Klausulak ez betetzea

Deialdi honetako klausulak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.